 LIZARTZAKO UDALA	LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA- TESTU BATERATUA-		
	2007KO OTSAILA	A.6	FITXAK GOIKOETXEAUNDIA

A.6. EREMUA – GOIKOETXEAUNDIA

a) Deskribapena

Eremu honetan Goikoetxeaundia zerrategia kokatzen da. Herri gunetik atera eta Tolosarantz doan Gi-2135 errepidearen ezker aldean kokatzen da, ibaiaren ezker eta eskuin aldeetara. Zubi batek lotzen ditu eremu barruko ibaiaren bi ertzak.

Eremu honen mugaketa zehatza dagokion fitxan jasota dago.

Bere azalera, gutxi gorabehera, 18.900 m²-koa da.

Egungo azalera eraikia 5.620 m² koa da, nahiz eta aurreko Arau Subsidiarioetan 7.417 m² arteko eraikigarritasuna baimendu.

b) Sailkapena:


Hiri lurra kontsolidatua

c) Kalifikazio Orokorra:

Industrialia

d) Helburuak

Eremu honetako helburua gaur egungo jarduera mantentzea da.

 LIZARTZAKO UDALA	LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA- TESTU BATERATUA-		
	2007KO OTSAILA	A.6	

Aurreko Arau Subsidiarioetan onartutako aprobetxamenduak kontsolidatzen dira.

e) Eraikinen erabilera baldintzak:

Soilik landa lurreko, berezko, lehengaien lehen transformaziorako industri jarduerak baimenduko dira bertan. Eremu honetan industria bakarria onartzen da.

f) Jardute baldintzak:


Eremu honetan jardute unitate bakarria mugatu da: A.6.1 unitatean gaur egun kontsolidaturik dagoen eremua sartzen da.

A.6.1 Unitatea:

a) Eraikuntza baldintzak eta erabilpen intentsitatea:

Gaur egun bertan dauden eraikinak eta lehengo Arau Subsidiarioetan aurreikusten ziren zabalpenak kontsolidatzen dira.

- Gehienez guztira eraikitako azalera 7.417 m²-koa izango da.
 - Behe oinean: 6.743 m²
 - tarteko solairuan: 674 m²
- Gehienezko altuera teilatu hegalaria: 8 m
- Teilatua: Isuri bakarreako edo bikoitza izango da.
- Solairuetako gutxienezko altuera librea: 2,80 m

 LIZARTZAKO UDALA	LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA- TESTU BATERATUA-		
	2007KO OTSAILA	A.6	

- Gauzaten den 100m2 eraikigarri bakoitzeko aparkaleku bat egokitu beharko da
- Unitateari dagokion fitxan jasotako lerrokadurak errespetatuko dira.

b) Urbanizazio baldintzak:

Espazio publikoen lerrokadura eta sestrak eremu honi dagokion fitxan agertzen direnak izango dira. Oraindik egiteke dauden lagapenak gauzatu beharko dira.

Ibai ertzean birurbanizazio lanak burutu behar balira, ingurumenaren lehengoratzeari bermatu beharko da, Araxes ibaia eta hari lotutako bertako landareriaren funtzio zuzentzailea mantendu, lehengoratu eta sustatzeko neurriak hartuz, lurraldeak espeziaren fluxua izan dezan laguntzeko.

. Birlandaketak burutzerakoan bertako zuhaitz eta landaretza erabiliko da, landare inbasiboen erabilera saihestuz.

. Ibai ertza berreskuratzerakoan, ezpondak egonkortzeko eta lurrazala drainatzeko, ingeniariaren biologikoko teknikak edo teknika malguak erabiliko dira, paisaia hobeto egokitzen direlako.

. Obrak burutzerakoan, araudi orokorreko bigarren liburuak bigarren kapitulua, ingurumenaren babeserako aurreikusitako neurriak, kontutan hartu beharko da.

c) Jardute baldintzak:

Jardute sistema hitzarmen sistema izango da.